

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

2212

EBAZPENA, 2022ko maiatzaren 16koa, Funtzio Publikoko sailburuordearena, zeinaren bidez arautzen baita aldi baterako enplegurako lan-poltsak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari kidegoei eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legearen arabera egokitzeko prozedura.

Kidegoei eta eskalei buruzko lege berriak, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari kidegoei eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legeak EAEko Administrazio orokorreko funtzionarioak sailkatzeko kidegoak eta eskalak aldatu ditu.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari kidegoak sailkatzeko, bertan sartzeko exijitzen den titulazio-mailari begiratuko zaio, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 76. artikulua agintzen duenari jarraituz.

Aldi baterako zerbitzuak egingo dituzten langileak hautatzeko prozedurak zehazteko, kontuan hartuko da zer kidegori eta eskalari atxikita dagoen lanpostu-zerrenda berrietan lanpostu bakoitza, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrak eta haren organismo autonomoek halakorik behar badute.

Legearen laugarren xedapen gehigarrian dago xedatuta ezen, enplegu publikoaren alorreko eskumena duen sailburuordetzaren ebazpen baten bidez, lege hau indarrean jartzen denean dauden aldi baterako enplegurako lan-poltsak egokituko direla sortzen diren kidego eta eskala berrietara.

Agindu horren arabera, eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 17. artikuluekin bat etorriz, langileen ordezkariekin negoziatu ondoren eta organo eskudunek nahitaezko txostenak eman ondoren, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

1.– Ebazpen honen xedea hau da: arautzea zer prozedura erabiliko den Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko eta haren organismo autonomoetako aldi baterako enplegurako lan-poltsak egokitzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari Kidegoei eta Eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legean xedatutakoaren arabera.

Horretarako sortu dira lege horretan xedatutako kidegoei eta eskalei dagozkien aldi baterako enplegurako lan-poltsak. I. eranskineko zerrendan daude.

2.– Araupetze honetatik kanpo geratuko dira II. eranskinean zerrendatutako lan-poltsak, hain zuzen, aldi baterako langile lan-kontratudunak hautatzeko erabilitakoak eta lanpostu-poltsa espezifikoak.

2. artikulua.– Eremu subjektiboa.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko eta haren organismo autonomoetako aldi baterako enplegurako lan-poltsetan dauden pertsonak sortu berri diren poltsetan sartuko dira, hurrengo artikuluetan adierazitakoaren arabera, baldin eta sartzen diren poltsari dagokion eskalara iristeko eskatzen den titulazioa badaukate.

2.– B taldeko, C1 eta C2 azpitaldeetako eta Laguntzako Langileen Talde Profesionaleko kidego eta eskaletan, pertsonen sarrera eta lan-poltsen egokitzapena automatikoak izango dira 3. eta 4. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

3.– A taldeko kidegoetan, pertsonen sarrera eta lan-poltsen egokitzapena 5. artikulutik 10. artikulura bitartean xedatutakoaren arabera egingo dira.

4.– II. eranskinean zerrendatutakoak, hau da, lan-kontratudunen kategoriei dagozkien aldi baterako enplegurako lan-poltsak eta lanpostu-poltsa espezifikoak aldaketa barik mantenduko dira.

3. artikulua.– C1 eta C2 azpitaldeei eta Laguntzako Langileen Talde Profesionalari dagozkien aldi baterako enplegurako lan-poltsak egokitzea, eta sartzeko eta antolatzeko irizpideak.

1.– Ondoren zerrendatutako kidegoei dagozkien lan-poltsetan dauden pertsonen jatorrizko lan-poltsan esleituta zeuzkaten puntuazio eta ordena bera izango dute adierazitako kidegoari eta eskalari dagokien lan-poltsan sartzeko orduan.

a) Mendekoen Kidegoari dagokion lan-poltsan daudenak Laguntzako Langileen Talde Profesionalari dagokion lan-poltsan sartuko dira.

b) Administrari Laguntzaileen Kidegoari dagokion lan-poltsan daudenak Administrari Laguntzaileen Kidegoko Administrari Laguntzaileen Eskalari dagokion lan-poltsan sartuko dira.

c) Administrarien Kidegoari dagokion lan-poltsan daudenak Administrarien Kidegoko Administrarien Eskalari dagokion lan-poltsan sartuko dira.

2.– Halaber, Zuzenean zerbitzuko agenteen lan-poltsan daudenak Administrarien Eskalari dagokion lan-poltsan sartuko dira.

3.– Zuzenean zerbitzuko agenteen lan-poltsan sartzeko modua ezohikoa izan bada, Administrarien Kidegoko lan-poltsaren ezohiko kudeaketatik kudeatu delako, eta lanpostu horretan emandako zerbitzuak Zuzenean zerbitzuko agente gisa bakarrik birbarematu badira, Zuzenean zerbitzuko agenteen lan-poltsako birbaremazio hori Administrarien Eskalako lan-poltsako puntuazioari gehituko zaio.

3. artikulua.– B taldeari dagozkion aldi baterako enplegurako lan-poltsak egokitzea, eta sartzeko eta antolatzeko irizpideak.

1.– Laguntzaile Teknikoen Kidegoko aukerei dagozkien eta ondoren zerrendatuta dauden lan-poltsetan dauden pertsonen jatorrizko lan-poltsan esleituta zeuzkaten puntuazio bera izango dute, eta horren arabera ordenatuko dira, adierazitako eskalari dagozkion Laguntzaile Teknikoen Kidegoko lan-poltsetan sartzeko orduan.

a) Obren eta Instalazioen Delineazioko Eskalako aldi baterako enplegurako lan-poltsetan, Laguntzaile Teknikoen Kidegoko aukera hauei dagozkien aldi baterako enplegurako lan-poltsetan daudenak sartuko dira:

– Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko Goi-mailako teknikaria.

- Eraikuntza-proiektuen Garapeneko eta Aplikazioko Goi-mailako teknikaria.
 - Obren Planak Gauzatzeko Goi-mailako teknikaria.
 - Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko Goi-mailako teknikaria.
- b) Kudeaketa Informatikako Eskalako aldi baterako enplegurako lan-poltsetan, Laguntzaile Teknikoen Kidegoko aukera hauei dagozkien aldi baterako enplegurako lan-poltsetan daudenak sartuko dira:
- Aplikazio Informatikoak Garatzeko Goi-mailako teknikaria.
 - Sistema Informatikoen Administrazioari Goi-mailako teknikaria.
- c) Hazien Eskalako aldi baterako enplegurako lan-poltsetan, Laguntzaile Teknikoen Kidegoko aukera hauei dagozkien aldi baterako enplegurako lan-poltsetan daudenak sartuko dira:
- Nekazaritza eta Abeltzaintzako Enpresen Kudeaketa eta Antolamenduko Goi-mailako teknikaria.
 - Natura- eta Paisaia-baliabideen Kudeaketa eta Antolamenduko Goi-mailako teknikaria.
 - Elikagaien Industriako Goi-mailako teknikaria.
- d) Arrantzako Eskalako aldi baterako enplegurako lan-poltsetan, Laguntzaile Teknikoen Kidegoko aukera hauei dagozkien aldi baterako enplegurako lan-poltsetan daudenak sartuko dira:
- Itsas Nabigazio, Arrantza eta Garraioko Goi-mailako teknikaria.
 - Itsasontziko Makinak eta Instalazioak Ikuskatu eta Kontrolatzeko Goi-mailako teknikaria.
 - Arrantza-ikuskatzaileen lanposturako lan-poltsa espezifikoa.
- e) Laborategiko eta Osasun eta Ingurumeneko Ikuskaritzako Eskalako aldi baterako enplegurako lan-poltsetan, Laborategiko Eskalari eta Laguntzaile Teknikoen Kidegoko aukera hauei dagozkien aldi baterako enplegurako lan-poltsetan daudenak sartuko dira:
- Ingurumen-osasuneko Goi-mailako teknikaria.
 - Kimika Industrialeko Goi-mailako teknikaria.
 - Analisisiko eta Kalitate Kontroleko Laborategiko Goi-mailako teknikaria.
 - Diagnostiko Klinikoko Laborategiko Goi mailako teknikaria.
- 2.– Lan-poltsa berrietako pertsonen jatorrizko lan-poltsako puntuazioari eutsiko diote. Irizpide hori aplikatzearen ondorioz pertsonaren bat bitan sartu behar bada lan-poltsa berean, behin baino ez da sartuko, puntuaziorik altuenari eutsiko zaio, eta ezin izango dira puntuazioak batu.
5. artikulua.– A taldeari dagozkion aldi baterako enplegurako lan-poltsak egokitzea.
- Azaroaren 11ko 7/2021 Legean xedatutako A taldeko kidego eta eskalei dagozkien aldi baterako enplegurako lan-poltsak eratzeko prozedura ezarriko da hurrengo artikuluetan. Egungo lan-poltsetan dauden pertsonekin osatuko dira, eta bertan sartuko dira aurreko aukerei eta eskala hauei dagozkien lan-poltsetan daudenak: Fakultatiboan Goi-mailako Kidegoa, Erdi-mailako Teknikarien Kidegoa eta lanpostu-poltsa espezifikoa batzuk.

III. eranskinean, sortzen diren lan-poltsa berrien eta dauden lan-poltsen arteko korrespondentziak daude zerrendatuta. IV. eranskinean, lan-poltsa zaharrekiko korrespondentziarik ez duten eskala berrietarako lan-poltsak daude zerrendatuta.

6. artikulua.– Aldi baterako enplegurako A taldearen lan-poltsak. Sartzeko eta antolatzeko irizpide orokorrak.

1.– Eskala berrietako lan-poltsetan sartzeko, lan-poltsa bakoitzari dagokion eskalarako eskatutako titulazioa izan behar du hautagaiak, eta eskala horrek nahitaez izan beharko du jatorrizko lan-poltsaren azpitalde eta kidego berekoa eta aukera edo eskala berekoa.

Jarduneko langileak badira, izendapenean agertzen den azpitaldearen arabera sartuko dira dagokien lan-poltsan, hurrengo puntuarekin bat etorritz.

2.– Jardunean dauden bitarteko funtzionarioek eskatzen badute kidego eta eskala berri batean integratzeko, Funtzio Publikoko sailburuordearen 2022ko maiatzaren 13ko Ebazpenaren deialdiko integrazio-prozesuaren esparruan, nahitaez eskatu beharko dute prozesu horren ondorioz integratuta geratzen diren eskalari dagokion lan-poltsan integratzeko. Hala egiten ez badute, ofizioz sartuko dira integrazio-eskalari dagokion lan-poltsan.

3.– A taldearen zenbat lan-poltsatan egon, hainbat aldiz aplikatuko zaizkio sartzeko eta antolatzeko irizpideak pertsona bakoitzari. Arau horiek aplikatzearen ondorioz pertsonaren bat bitan edo gehiagotan sartu behar bada aldi baterako enplegurako lan-poltsa berean, puntuaziorik altuenari utsiko zaio, eta ezin izango dira puntuazioak batu.

4.– Aldi baterako enplegurako hainbat lan-poltsatan sartzen den pertsona batek dauzkan puntuazioen batura, baldin eta lan-poltsa horietan jatorrizko lan-poltsa bakar batean egotetik sartu bada, ezin izango da jatorrizko lan-poltsan zeukan puntuazioa baino handiagoa izan.

5.– Emandako zerbitzuei egingo zaie erreferentzia hurrengo artikuluetan; hala ere, zerbitzu horiek 2006ko ekainaren 14az geroztik emandakoak –egun horretan sortu baitziren lan-poltsak– eta 2021eko abenduaren 31ra arte birbarematutakoak izango dira.

6.– Ezin izango dira zenbatu izendapen baten aurretiko borondatezko uko-egite batean aurretik emandako zerbitzuak, baldin eta izendapenari dagokion lan-poltsan behin betiko baja eragin bazuen.

7.– 2021eko abenduko 31z geroztiko zerbitzuak baino eman ez dituzten pertsonak, irizpide honen arabera sartzen badira lan-poltsa berrietan, ez dute punturik izango.

Lan-poltsa berrian, zerbitzu horiek 2023. urteko lehen hiruhilekoan birbarematuko dira, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2021eko urtarrilaren 7ko Aginduan xedatutakoarekin bat etorritz, haren bidez arautu baitzen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren organismo autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileen hautaketa.

8.– Emandako zerbitzuengatik lan-poltsetan sartzen diren pertsonen arteko berdinketa gertatuz gero, emakumeei emango zaie lehentasuna, baldin eta kasuan kasuko eskalako lan-poltsan emakumeen ordezkariak % 40 baino txikiagoa bada.

Hala eta guztiz ere, berdinketak bere horretan badirau, irizpide hauek erabiliko dira, ordena honetan:

1.– Aldez aurretik lan-poltsan egoteagatik, lan-poltsa hori korrespondentziaduna bada.

2.– Egun gehien aritu izanagatik zerbitzuengatik sartuko den lan-poltsari dagozkion eskaletako lanpostuetan.

3.– Antzinasunetik handiena izateagatik eskalako lan-poltsan sartzeko erabiliko duen izendapenari dagokion kidegoan/aukeran.

4.– Administrazio honetan emandako zerbitzuetan denbora gehien igaro izanagatik.

5.– Administrazio honetan antzinasunetik handiena izateagatik.

6.– Eman diren eta lan-poltsa berrian sartzeko baloragarriak diren zerbitzuen jatorria den lan-poltsan sartu den egunarengatik.

7. artikulua.– III. eranskineko lan-poltsa korrespondentziadunetan sartzeko eta lan-poltsa horiek antolatzeke irizpide espezifikoak.

1.– Sartzeko irizpideak. III. eranskinean dauden aldi baterako enplegurako lan-poltsa korrespondentziadunetan honako hauek sartu ahal izango dira:

a) Kidegoari eta aukerari edo eskalari dagokien aldi baterako enplegurako lan-poltsan daude-nak eta, jarduneko langileak badira, izendapeneko azpitaldearekin bat etorrita.

b) Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak dituztenak.

2.– Antolatzeke irizpideak. Aldi baterako enplegurako lan-poltsa horietara sartzen den hautagai bakoitzari esleitutako puntuazioa honako hau izango da:

a) III. eranskinaren arabera jatorrizko lan-poltsa korrespondentziadunekoak izateagatik sartzen direnek, baldin eta poltsa horretan bakarrik sartzen badira, jatorrizko lan-poltsako puntuazio osoari eutsiko diote.

Jatorrizko lan-poltsako puntuazio osoa honela dago osatuta: lan-poltsa eratzeko prozeduran eskuratutako puntuak gehi urte natural bakoitzean egindako zerbitzuei dagozkien puntuak (2021eko abenduaren 31ra arteko birbaremazioaren ondoriozko puntuak).

b) Lan-poltsa korrespondentziadunaz gain, beste lan-poltsa batean sartzen bada aldi baterako enplegurako beste lan-poltsa batzuen eskalari atxikitako lanpostuetan zerbitzuak emateagatik, jatorrizko lan-poltsako puntuazio osoari kenduko zaizkio sartzen den gainerako lan-poltsan esleitzen zaizkion puntuak.

c) Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak izateagatik sartzen direnei lanpostu horietan lanean emandako egun bakoitzeko 0,003 puntu emango zaie, 2006ko ekainetik 2021eko abenduaren 31ra bitarteko urteko birbaremazioarekin bat etorritik.

8. artikulua.– IV. eranskineko lan-poltsa korrespondentzia gabeetan sartzeko eta lan-poltsa horiek antolatzeke irizpide espezifikoak.

1.– Sartzeko irizpideak. IV. eranskineko korrespondentziarik gabeko eskaletako aldi baterako enplegurako lan-poltsan sartu ahal izango dira eskala horri atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak dituztenak.

2.– Antolatzeke irizpideak. IV. eranskineko eskala berrien lan-poltsan sartutako pertsonak ordenatzeko, kontuan hartuko da eskala horri atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzu-denbora.

Emandako zerbitzu horiek zenbatzeko, lanean emandako egun bakoitzeko 0,003 puntu emango da, 2006ko ekainetik 2021eko abenduaren 31ra bitarteko urteko birbaremazioarekin bat etorritik.

9. artikulua.– Lan-poltsa berrietako egoera eta lehentasunak.

Lan-poltsa korrespondentziadun batean sartuz gero, jatorrizko lan-poltsan adierazitako berak izango dira egoera eta lehentasunak.

Jatorrizko lan-poltsa bat baino gehiago izanez gero, puntuaziorik handiena duen jatorrizko lan-poltsakoak izango dira lehentasunak, horiexek eragingo baitute ordenarik onena lan-poltsa berrian.

Honela ezarriko da egoera:

A) Jatorrizko lan-poltsan ez badago alderik egoerari begira, jatorrizko lan-poltsa guztietan ezarritako PREST –lanerako prest dago– edo HAUTAEZIN –ez dago lanerako prest– egoerari eutsiko zaio.

B) Jatorrizko lan-poltsan egoeraren arabera aldea badago, lan-poltsa berrian PREST egoera jarriko da, baldin eta HAUTAEZIN egoera ez bada ezarri zehapen hauetako baten ondorioz: Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2021eko urtarrilaren 7ko Aginduaren 13.2 artikuluan xedatutako zehapenak –agindu horren bidez arautzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren organismo autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileen hautaketa–.

Lehentasunak eta egoerak aldatzeko aukera izango dute hautagaiek; horretarako, Funtzio Publiko sailburuordearen ebazpenaren bidez argitaratutako lan-poltsak oinarritzat hartuta sortutako atarian sartu beharko dira, artikuluan honen b) apartatuan adierazitako egoeran izan ezik. Pertsona horiek ezin izango dute lan-poltsako egoera aldatu eta PREST egoerara igaro zehapen-ebazpenen ezarritako epea amaitu arte.

10. artikulua.– «Desagertzeko» dauden aldi baterako enplegurako lan-poltsak.

1.– V. eranskinean daude zerrendatuta «desagertzeko» dauden aldi baterako enplegurako lan-poltsak. Lan-poltsa horietan dauden pertsonak, ezin badira beste lan-poltsa batzuetan sartu ebazpen honen 5., 6. eta 7. artikuluetan adierazitako irizpideen arabera, desagertzeko dauden jatorrizko lan-poltsan segituko dute eta esleituta zuten puntuazioari eutsiko diote.

2.– Lan-poltsa horiek osatzen dituzten pertsonak lan-poltsen salbuespenezko kudeaketa-sistemaren bidez jaso ahal izango dituzte enplegu-eskaintzak, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2021eko urtarrilaren 7ko Aginduaren 5. artikuluan xedatutako baldintzetan –agindu horren bidez arautzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren organismo autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileen hautaketa–.

11. artikulua.– Administrazioaren proposamena A taldearen lan-poltsan dauden langileentzat.

Funtzio Publiko Zuzendaritzak proposamen bat egingo du dauden lan-poltsa guztietako pertsonak sartzeko, honela:

– III. eranskineko lan-poltsa korrespondentziadunetako kideek dagokien lan-poltsa berrian sartzeko proposamena hartuko dute, eta horretan baino ez. Korrespondentziarik gabeko eskala berrietan zerbitzuak dituzten pertsonak, berriz, eskala berri horietan sartzeko proposamena ere hartuko dute, baldin eta horiek lehentasunezkoak badira.

– III. eranskinean sartu ez diren jatorrizko lan-poltsan dauden kideek proposamena hartuko dute zerbitzuak eman dituzten lanpostuetako lehentasunezko eskaletako lan-poltsan sartzeko.

– «Desagertzeko» dauden lan-poltsan dauden eta eskala berrietako batean ere zerbitzurik eman ez duten kideek lan-poltsa horietan segitzeko proposamena hartuko dute.

12. artikulua.– Prozedura.

1.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, 10 egun balioduneko epea hasiko da Funtzio Publikoko Zuzendaritzak egindako sartzeko proposamenak onartzeko edo aldatzeko.

Aldi berean, lan-poltsetan dauden pertsonak komunikazio bat jasoko dute egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalean, zeinaren bidez adieraziko baitzaie zein den proposamena lan-poltsetan sartzeko eta informazioa emango baitzaie sartuko diren lan-poltsei buruz. Halaber, lan-poltsa bakoitzean esleituko litzaiekeen puntuazioaren berri ere emango zaie.

2.– Lan-poltsen atarian, 10 gun balioduneko epe horretan, hautagaiek eskatu ahal izango dute Funtzio Publikoko Zuzendaritzaren proposamena aldatzeko eta honako hau:

a) Eskala berrietako lan-poltsetatik kentzeko eta, ondorioz, soilik lan-poltsa korrespondentzia-dunetan geratzeko.

b) Hala badagokio, eskala berriei atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak adina lan-poltsatan sartzeko.

3.– Jarduneko edo antzeko egoeraren batean dauden bitarteko funtzionarioek nahitaez eskatu beharko dute deialdiko integrazio-prozesu espezifikoan eskatzen duten kidegoari eta eskalari dagokien aldi baterako enplegurako lan-poltsan sartzeko, hargatik eragotzi gabe beste lan-poltsa batzuetan ere sartzeko eskatu ahal izatea.

4.– Ezarritako epean proposamenak aldatzen ez bada, Funtzio Publikoko Zuzendaritzak proposatutako lan-poltsetan sartuko dira; eta kidegoari eta eskalari dagokien aldi baterako lan-poltsetarako sarrera ere gehituko da, baldin eta hori egon ez bada jasota egindako proposamenean edo jarduneko langileek egindako aukeran.

5.– Aukeratzeko epea amaituta, eta interesdunen erreklamazioak edo aldaketak ebatzi ondoren, pertsona guztiak dagozkien lan-poltsetan sartuko dira eta Funtzio Publikoko sailburuordearen ebazpenez sortutako lan-poltsak argitaratuko dira Lan-poltsen atarian.

13. artikulua.– Ondorioak.

Aldi baterako lan-poltsak egokitzeak ondorioak izango ditu sortutako lan-poltsak argitaratzen dituen Funtzio Publikoko sailburuordearen Ebazpenean zehaztutako moduan.

AZKEN XEDAPENA.– Eraginkortasuna.

Ebazpen honek ondorioak izango ditu Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtoa jarri ahal izango zaio Funtzio Publikoko sailburuordeari, hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko maiatzaren 16a.

Funtzio Publikoko sailburuordea,
JOSE MARÍA ARMENTIA MACAZAGA.

I. ERANSKINA

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako kidegoak eta eskalak arautzen dituen azaroaren 11ko 7/2021 Legea onartu ondoren sortu diren aldi baterako enplegurako lan-poltsak

A1 azpitaldeko lan-poltsak:

- 1.– Administrazioako Goi Mailako Eskala.
- 2.– Kultura Administrazioako Eskala Fakultatiboa.
- 3.– Kiroletako Eskala Fakultatiboa.
- 4.– Nekazaritza eta Abeltzaintza Sektoreko Eskala Fakultatiboa.
- 5.– Arreta Soziolaboraleko Eskala Fakultatiboa.
- 6.– Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazioko Eskala Fakultatiboa.
- 7.– Kartografiako Eskala Fakultatiboa.
- 8.– Eraikingintza, Hirigintza eta Lurralde Antolamenduko Eskala Fakultatiboa.
- 9.– Ekonomia eta Enpresako Eskala Fakultatiboa.
- 10.– Larrialdietako eta Meteorologiako Eskala Fakultatiboa.
- 11.– Estatistikako eta Datu Analisisietako Eskala Fakultatiboa.
- 12.– Farmaziako Eskala Fakultatiboa.
- 13.– Industriako Eskala Fakultatiboa.
- 14.– Azpiegituretako Eskala Fakultatiboa.
- 15.– Eskala Juridiko Fakultatiboa.
- 16.– Laborategiko Eskala Fakultatiboa.
- 17.– Medikuntzako Eskala Fakultatiboa.
- 18.– Ingurumeneko Eskala Fakultatiboa.
- 19.– Meatzeetako Eskala Fakultatiboa.
- 20.– Itsasontzietako Eskala Fakultatiboa.
- 21.– Hizkuntza Normalizazioko Eskala Fakultatiboa.
- 22.– Prentsa eta Argitalpenetako Eskala Fakultatiboa.
- 23.– Lan Arriskuen Prebentzioko Eskala Fakultatiboa.
- 24.– Giza Baliabideetako eta Prestakuntzako Eskala Fakultatiboa.
- 25.– Osasun Publikoko eta Epidemiologiako Eskala Fakultatiboa.
- 26.– Informazio Sistemetako Eskala Fakultatiboa.
- 27.– Telekomunikazioetako Eskala Fakultatiboa.

28.– Itzulpengintzako Eskala Fakultatiboa.

29.– Albaitaritzako Eskala Fakultatiboa.

A2 azpitaldeko lan-poltsak:

1.– Administrazio Kudeaketako Eskala.

2.– Eraikingintza, Hirigintza eta Lurralde Antolamenduko Eskala Teknikoa.

3.– Industriako Eskala Teknikoa.

4.– Azpiegituretako Eskala Teknikoa.

5.– Meatzeetako Eskala Teknikoa.

6.– Telekomunikazioetako Eskala Teknikoa.

7.– Ekonomia eta Enpresako Eskala Teknikoa.

8.– Erizaintzako Eskala Teknikoa.

9.– Estatistikako Eskala Teknikoa.

10.– Ingurumeneko Eskala Teknikoa.

11.– Hizkuntza Normalizazioko Eskala Teknikoa.

12.– Lan Arriskuen Prebentzioko Eskala Teknikoa.

13.– Informazio Sistemetakako Eskala Teknikoa.

14.– Laborategiko Eskala Teknikoa.

15.– Prebentzioko Eskala Teknikoa.

16.– Nekazaritza eta Abeltzaintza Sektoreko Eskala Teknikoa.

17.– Arreta Soziolaboraleko Eskala Teknikoa.

18.– Larrialdietako eta Meteorologiako Eskala Teknikoa.

B taldeko lan-poltsak:

1.– Obren eta Instalazioen Delineazioko Eskala.

2.– Kudeaketa Informatikako Eskala.

3.– Hazien Eskala.

4.– Arrantzako Eskala.

5.– Laborategiko eta Osasun eta Ingurumen Ikuskaritzako Eskala.

C1 azpitaldeko lan-poltsa:

Administrarien Eskala.

C2 azpitaldeko lan-poltsa:

Administrari Laguntzaileen Eskala.

E taldeko lan-poltsa:

Laguntzako Langileen Talde Profesionala.

II. ERANSKINA

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioiko kidegoei eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legearen araberrako egokitze-prozesutik kanpo utzi diren aldi baterako enplegurako lan-poltsak

1761	Baliabide Orokorretako Teknikaria
8060	Portuko Kaizainak
8310	Sukaldeko Laguntzailea/Garbitzailea
8315	Itsasontzi-Arduraduna
510601	Argitalpen-Arduraduna
702037	Inprenta-Arduraduna
700263	Mantentze-Lanetako Teknikaria
700268	EHE-ko Jantoki eta Sukaldeko Arduraduna
700291	Sukaldaria
700300	EHE-ko Peoia
700302	Zerbitzaria
700311	Peoia
799245	Psikologoa (Justizia)
799247	Hezitzailea (Justizia)
799248	Gizarte-Langilea (Justizia)
799249	Peritu Judiziala (Justizia)
799252	Autopsia-Laguntzailea (Justizia)
799264	Histopatologiako Teknikaria (Justizia)
799328	Ikuztegiko Laguntzailea
799334	Psikologoa (Zumarraga)
799335	Lantalde Psikosozialaren Koordinatzailea (Justizia)
799336	Gizarte-Langilea (Zumarraga)
799337	Hezitzailea (Zumarraga)
799906	Ikuskatzailea (Eustat)
799907	Elkarrizketatzailea (Eustat)
	Arte Grafikoetako Laguntzailea

III. ERANSKINA

Jatorrizko lan-poltsen eta eskala berrietara egokitutako lan-poltsen arteko korrespondentziak

A) A1 AZPITALDEA

Jatorrizko lan-poltsak	Lan-poltsa berriak
G. T. AUKERA: HISTORIAKO LIZENTZIA	Kultura-Administrazioko Eskala Fakultatiboa
G. T. ESKALA: ARTXIBOAK, LIBURUTEGIAK ETA DOKUMENTAZIOA	Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazioko Eskala Fakultatiboa
G. T. AUKERA: GEODESIA- ETA KARTOGRAFIA-INGENIARITZA	Kartografiako Eskala Fakultatiboa
G. T. AUKERA: JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN ZIENTZIETAKO LIZENTZIA	Kiroletako Eskala Fakultatiboa
G. T. AUKERA: EKONOMIAKO LIZENTZIA	Ekonomia eta Enpresako Eskala Fakultatiboa
G. T. AUKERA: ENPRESEN ADMINISTRAZIOA ETA ZUZENDARITZAKO LIZENTZIA	Ekonomia eta Enpresako Eskala Fakultatiboa
G. T. AUKERA: AKTUARIOTZA- ETA FINANTZA-ZIENTZIETAKO LIZENTZIA	Ekonomia eta Enpresako Eskala Fakultatiboa
G. T. AUKERA: ARKITEKTURA	Eraikintza, Hirigintza eta Lurralde-Antolamenduko Eskala Fakultatiboa
G. T. ESKALA: ESTADISTIKA	Estatistikako eta Datu-Analisietako Eskala Fakultatiboa
G. T. AUKERA: FARMAZIAKO LIZENTZIA	Farmaziako Eskala Fakultatiboa
G. T. AUKERA: BIDE, UBIDE ETA PORTUEN INGENIARITZA	Azpiegituretako Eskala Fakultatiboa
G. T. ESKALA: LABORATEGIA	Laborategiko Eskala Fakultatiboa
G. T. AUKERA: MEDIKUNTZAKO LIZENTZIA	Medikuntzako Eskala Fakultatiboa
G. F. AUKERA: INGURUMEN-ZIENTZIAK LIZENTZIA	Ingurumeneko Eskala Fakultatiboa
G. T. AUKERA: MEATZE-INGENIARITZA	Meatzeetako Eskala Fakultatiboa
G. T. ESKALA: HIZKUNTZA-NORMALIZAZIOA	Hizkuntza-normalizazioko Eskala Fakultatiboa
G. T. AUKERA: KAZETARITZAKO LIZENTZIA	Prensa eta Argitalpenetako Eskala Fakultatiboa
G. T. AUKERA: PUBLIZITATEKO ETA HARREMAN PUBLIKOETAKO LIZ.	Prensa eta Argitalpenetako Eskala Fakultatiboa
LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOKO TEKNIKARIA	Lan Arriskuen Prebentzioko Eskala Fakultatiboa
G. T. ESKALA: EPIDEMIOLOGIA	Osasun Publikoko eta Epidemiologiako Eskala Fakultatiboa
G. T. ESKALA: OSASUN PUBLIKOA	Osasun Publikoko eta Epidemiologiako Eskala Fakultatiboa
G. T. AUKERA: TELEKOMUNIKAZIO-INGENIARITZA	Telekomunikazioetako Eskala Fakultatiboa
G. T. ESKALA: ITZULPENGINTZA	Itzulpengintzako Eskala Fakultatiboa
G. T. AUKERA: ALBAITARITZAKO LIZENTZIA	Albaitaritzako Eskala Fakultatiboa
G. T. AUKERA: INDUSTRIA-INGENIARITZA	Industriako Eskala Fakultatiboa
G. T. AUKERA: ZUZENBIDEKO LIZENTZIA	Eskala Juridiko Fakultatiboa
G. T. AUKERA: NAUTIKAKO ETA ITSAS GARRAIOKO LIZENTZIA	Itsasontzietako Eskala Fakultatiboa
G. T. AUKERA: ITSASONTZI-MAKINETAKO LIZENTZIA	Itsasontzietako Eskala Fakultatiboa
G. T. AUKERA: NEKAZARITZAKO INGENIARITZA	Nekazaritza- eta Abeltzaintza-sektoreko Eskala Fakultatiboa
G. T. ESKALA: INFORMAZIOAREN SISTEMAK ETA TEKNOLOGIAK	Informazio-sistemetako Eskala Fakultatiboa
ADMINISTRAZIOKO GOI-MAILAKO KIDEGOIA	Administrazioko Goi-mailako Eskala

B) A2 AZPITALDEA

Jatorrizko lan-poltsak	Lan-poltsa berriak
ADMINISTRAZIO-KUDEAKETAKO KIDEGOIA	Administrazio-kudeaketako Eskala
E. M. T. ESKALA: ITZULPENGINTZA	Itzulpengintzako Eskala Teknikoa
E. M. T. ESKALA: ESTADISTIKA	Estatistikako eta Datu-analisietako Eskala
E. M. T. AUKERA: ENPRESA-ZIENTZIETAKO DIPLOMA	Ekonomia eta Enpresako Eskala Teknikoa
E. M. T. AUKERA: ARKITEKTURA TEKNIKOA	Eraikingintza, Hirigintza eta Lurralde-antolamenduko Eskala Teknikoa
E. M. T. AUKERA: ERIZAINTZAKO DIPLOMA	Erizaintzako Eskala Teknikoa
E. M. T. AUKERA: HERRI-LANETAKO INGENIARITZA TEKNIKOA, ERAIKUNTZA ZIBILAK ESPEZIALITATEA	Azpiegituretako Eskala Teknikoa
E. M. T. AUKERA: HERRI-LANETAKO INGENIARITZA TEKNIKOA, HIRI-GARRAIO ETA -ZERBITZUAK ESPEZIALITATEA	Azpiegituretako Eskala Teknikoa
E. M. T. AUKERA: MEATZEETAKO INGENIARITZA TEKNIKOA, MEATZEEN USTIAKUNTZA ESPEZIALITATEA	Meatzeetako Eskala Teknikoa
E. M. T. AUKERA: MEATZEETAKO INGENIARITZA TEKNIKOA, BALIABIDE ENERGETIKOAK, ERREGAIKAK ETA LEHERGAIKAK ESPEZIALITATEA	Meatzeetako Eskala Teknikoa
E. M. T. ESKALA: HIZKUNTZA-NORMALIZAZIOA	Hizkuntza-normalizazioko Eskala Teknikoa
LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOKO TEKNIKARIA	Lan Arriskuen Prebentzioko Eskala Teknikoa
E. M. T. AUKERA: INDUSTRIA-INGENIARITZA TEKNIKOA, KIMIKA INDUSTRIALA ESPEZIALITATEA	Industriako Eskala Teknikoa
E. M. T. AUKERA: INDUSTRIA-INGENIARITZA TEKNIKOA, ELEKTRIZITATEA ESPEZIALITATEA	Industriako Eskala Teknikoa
E. M. T. AUKERA: INDUSTRIA-INGENIARITZA TEKNIKOA, INDUSTRIA ELEKTRONIKA ESPEZIALITATEA	Industriako Eskala Teknikoa
E. M. T. AUKERA: INDUSTRIA-INGENIARITZA TEKNIKOA, MEKANIKA ESPEZIALITATEA	Industriako Eskala Teknikoa
E. M. T. AUKERA: NEKAZARITZA-INGENIARITZA TEKNIKOA, NEKAZARITZA- ETA ABELTZAINZTA-USTIATEGIAK ESPEZIALITATEA	Nekazaritza- eta Abeltzaintza-sektoreko Eskala Teknikoa
E. M. T. AUKERA: NEKAZARITZA-INGENIARITZA TEKNIKOA, NEKAZARITZA- ETA ELIKAGAI-INDUSTRIAK ESPEZIALITATEA	Nekazaritza- eta Abeltzaintza-sektoreko Eskala Teknikoa
E. M. T. AUKERA: NEKAZARITZA-INGENIARITZA TEKNIKOA, BARATZEZAINZTA ETA LOREZAINZTA ESPEZIALITATEA	Nekazaritza- eta Abeltzaintza-sektoreko Eskala Teknikoa

C) B TALDEA

JATORRIZKO LAN-POLTSAK	Lan-poltsa berriak
FABRIKAZIO MEKANIKOKO DISEINUKO G. T.	Obren eta Instalazioen Delineazioko Eskala
ERAIKUNTZA-PROIEKTUEN GARAPENEO ETA APLIKAZIOKO G. T.	
APLIKAZIO INFORMATIKOAK GARATZEKO G. T.	Kudeaketa-Informatikako Eskala
SISTEMA INFORMATIKOEN ADMINISTRAZIOKO G. T.	
NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZTAKO ENPRESEN KUDEAKETA ETA ANTOLAMENDUKO G. T.	Hazien Eskala
NATURA- ETA PAISAIA-BALIABIDEEN KUDEAKETA ETA ANTOLAMENDUKO G. T.	
ARRANTZA-IKUSKATZAILEA	Arrantzako Eskala
LABORATEGIKO ESKALA	Laborategiko eta Osasun Publikoko Eskala

D) C TALDEA

Jatorrizko lan-poltsak	Gaur egungo poltsak
ADMINISTRARI LAGUNTZAILEEN KIDEGOIA	Administrari Laguntzaileen Eskala
ADMINISTRARIEN KIDEGOIA	Administrarien Eskala

E) LAGUNTZAKO LANGILEEN TALDE PROFESIONALA

Jatorrizko lan-poltsak	Gaur egungo poltsak
MENDEKOA	Laguntzako Langileen Talde Profesionala

IV. ERANSKINA

Jatorrizko lan-poltsekiko korrespondentziarik ez duten eskala berriak

- 1.– Arreta Soziorabileko Eskala Fakultatiboa.
- 2.– Giza Baliabideetako eta Prestakuntzako Eskala Fakultatiboa.
- 3.– Larrialdietako eta Meteorologiako Eskala Fakultatiboa.
- 4.– Ingurumeneko Eskala Fakultatiboa.
- 5.– Arreta Soziorabileko Eskala Teknikoa.
- 6.– Ingurumeneko Eskala Teknikoa.

V. ERANSKINA

Desagertzeko dauden lan-poltsak

G. T. AUKERA: KIMIKAKO LIZENTZIA

G. F. AUKERA: GEOLOGIAKO LIZENTZIA

G. F. AUKERA: SOZIOLOGIAKO LIZENTZIA

G. T. AUKERA: BIOLOGIAKO LIZENTZIA

G. T. AUKERA: GEOGRAFIAKO LIZENTZIA

G. T. AUKERA: PSIKOLOGIAKO LIZENTZIA

G. T. AUKERA: FISIKAKO LIZENTZIA

G. T. AUKERA: MENDI-INGENIARITZA

G. T. AUKERA: INGENIARITZA KIMIKOA

G. T. AUKERA: INDUSTRIA-ANTOLAMENDUKO INGENIARITZA

MEDIKUA

EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO TEKNIKARIA

ORIENTATZAILEA

WEB-KUDEATZAILEA

GIZA BALIABIDEETAKO TEKNIKARIA

KANPO-EKINTZAKO TEKNIKARI ESPEZIALISTA

ENPRESAKO OLT/EUD

IMMIGRAZIOKO TEKNIKARIA

VI. ERANSKINA

Lanpostuko lan-poltsa batetik hautatu eta A1 azpitaldean izendatutako langileentzat proposatutako eskalak

Lanpostuko jatorrizko lan-poltsa	Eskalako lan-poltsa
Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Teknikaria	Administrazioko Goi-maila
Kanpo-ekintzako Teknikari Espezialista	Administrazioko Goi-maila
Web-kudeatzailea	Administrazioko Goi-maila
Auditorea	Ekonomia eta Enpresako Fakultatiboa
Medikua	Medikuntzako Fakultatiboa
Giza Baliabideetako Teknikaria	Giza Baliabideetako eta Prestakuntzako Fakultatiboa
Orientatzailea	Arreta Sozioraboreko Fakultatiboa
Lan Arriskuen Prebentzioko Teknikaria	Laneko Arriskuen Prebentzioko Fakultatiboa
Immigrazioko Teknikaria	Administrazioko Goi-maila

Lanpostuko lan-poltsa batetik hautatu eta A2 azpitaldean izendatutako langileentzako eskalak

Lanpostuko jatorrizko lan-poltsa	Eskalako lan-poltsa
Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Teknikaria	Administrazio-kudeaketa
Lan Arriskuen Prebentzioko Teknikaria	Laneko Arriskuen Prebentzioko Teknikaria
Immigrazioko Teknikaria	Administrazio-kudeaketa
Enpresako Erizaintza	Erizaintzako Teknikaria